

# FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektua aurrera eramateko, hainbat baliabide behar dira. Hala nola, baliabide fisiko, intelektual, giza baliabide eta finantza-baliabideak.

Baliabide fisikoen hasteko, bulego bat, ordenagailu bat beharko genituzke. Aurretik esan bezala, aplikazioak eguneratzeko proposamenak egiteko aukera izango du. Hortaz, bulego bat eta ordenagailu bat beharko genuke bezeroak jarritako proposamenak irakurtzeko eta hauek burutzeko.

Baliabide intelektualei dagokionez, mobincube eta aplikazioa, influencer bat, iragarkiak, beharko genituzke. Mobincuberekin aplikazioa sortuko dugu. Influencerrekin aplikazioa mundura zabalduko dugu, publizitaterik gabe ezinezkoa baita aplikazioa aurrera eramatea.

Gainera, pertsona bat beharko genuke bulegoan lan egiteko. Pertsona honek, bezeroak jarritako proposamenak irakurriko ditu eta eguneraketak burutu. Aplikazioa ongi joango balitz, pertsona bat baino gehiago beharko genuke. Bestetik, influencerrak beharrezkoak dira, publizitaterik gabe, proiektua aurrera eramatea ezinezkoa baita.

Kooperatiba bat garenez, bakoitzak bere dirua jarriko du. Inbertsio handirik ez da behar aplikazioa sortzeko, hortaz hasierako dirua ez zen asko izango.

